



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

Decreto 4/2010, de 15 de febrero, del Lehendakari por el que se ordena el inicio del procedimiento de elaboración del Anteproyecto de Ley de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior.

Dentro del marco de la estrategia de Lisboa se aprobó el 12 de diciembre de 2006 la Directiva 2006/123/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior, en adelante Directiva de Servicios, que entró en vigor el 28 de diciembre de ese mismo año. El mercado interior de servicios supone tanto la libertad de establecimiento de los nacionales, ciudadanos y empresas, de un Estado miembro en el territorio de otro Estado miembro como la libertad de prestación de servicios sin necesidad de establecerse en el Estado miembro donde éstos se prestan.

La aplicación de esta Directiva constituye no sólo una obligación en tanto que Derecho comunitario derivado sino también una oportunidad para reformar en profundidad un sector de gran importancia para la economía comunitaria en sus diversas escalas, resultando un instrumento clave para desbloquear todo el potencial del sector de los servicios en Europa.

El Estado, iniciador del proceso de transposición de la Directiva al ordenamiento jurídico español, ha dictado una ley de carácter básico, la Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio, en la cual se contienen los principios generales de la Directiva de Servicios y se fijan los criterios comunes para llevar a cabo el correspondiente proceso de adaptación normativa en las Comunidades Autónomas.

La Administración del Estado completa su proceso de transposición con la Ley 25/2009, de 22 de diciembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio, mediante la cual modifica distintas leyes estatales afectadas por las disposiciones de la Directiva de Servicios.

Así, el Anteproyecto de Ley que se pretende elaborar responde a la necesidad de que la Comunidad Autónoma del País Vasco adopte las medidas necesarias para la adaptación de sus normas con rango de Ley a la Directiva 2006/123/CE y a la legislación básica dictada por el Estado para su transposición.

Procede, por tanto, poner en marcha el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, regulado mediante la Ley 8/2003, de 22 de diciembre.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

La ordenación del procedimiento que refiere este Decreto exige desde su mismo inicio una decisión formal sobre la pertinencia de la elaboración de la norma, que más allá de una mera formalidad es un acto de gran trascendencia jurídica y política que se ha de basar en una reflexión sobre la necesidad y viabilidad de la norma a elaborar.

Por todo ello, y sobre la base del contenido necesario que debe tener, conforme al artículo 5.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, la orden de iniciación, que se formula en este caso por Decreto del Lehendakari,

DISPONGO:

Primero.- Objeto del Decreto y competencia para ordenar la iniciación del procedimiento.

1.- El objeto del presente Decreto es ordenar el inicio del procedimiento para la elaboración del Anteproyecto de Ley de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior.

2.- En cuanto a la competencia para ordenar la iniciación del procedimiento, la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece en su artículo 4.1 que este procedimiento de elaboración se iniciará por Orden del Consejero titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. Añade que, cuando así se establezca mediante ley, o cuando se trate de materias en las que disponen de atribución competencial directa dos o más Consejeros o Consejeras, la orden será conjunta.

El Anteproyecto de Ley de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior, afecta a varios Departamentos. No obstante, atendiendo a que su elaboración se ha encomendado a Lehendakaritza mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno del 17 de noviembre de 2009 por el que se aprueba el Calendario Legislativo de la IX Legislatura 2009-2013, y teniendo en cuenta que de conformidad con lo establecido en el Decreto 1/2010, de 12 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, corresponde a la Secretaría General de Coordinación de la Presidencia del Gobierno la asistencia al Lehendakari en el impulso y desarrollo de las acciones de cooperación, coordinación, planificación conjunta y articulación interdepartamental e interinstitucional del País Vasco en las políticas sectoriales, y tiene atribuidas, entre otras funciones, la de la preparación, desarrollo y seguimiento del programa legislativo, así como su tramitación parlamentaria, la orden de inicio viene formulada por Decreto del Lehendakari, por ser éste el titular de la Presidencia del Gobierno.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

Segundo.- Viabilidad jurídica y material de la norma.

La norma es perfectamente viable tanto jurídica como materialmente ya que responde a la necesidad de que la Comunidad Autónoma del País Vasco adopte las medidas necesarias para la adaptación de sus normas con rango de Ley a la Directiva 2006/123/CE y a la legislación básica dictada por el Estado para su transposición, que también habrá de ser tenida en cuenta cuando afecte a sectores de actividad en los que la Comunidad Autónoma no tiene competencias exclusivas, y tiene su habilitación en los diversos títulos competenciales contemplados en el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, que en su día fundamentaron la aprobación de las leyes que ahora se modificarán para su adaptación a la Directiva de Servicios.

Tercero.- Objeto y finalidad del Anteproyecto de Ley.

El objeto y la finalidad del Anteproyecto de Ley cuya elaboración se promueve es la modificación de diversas Leyes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior.

Cuarto.- Repercusión en el ordenamiento jurídico.

Este Anteproyecto de Ley de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior, modificará las siguientes Leyes:

- Ley 4/1991, de 18 de junio, de Juego en el País Vasco.
- Ley 7/2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi.
- Ley 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Ley 6/1994, de 16 de marzo, de ordenación del turismo.
- Ley 5/2004, de 7 de mayo, de Ordenación Vitivinícola.
- Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco.
- Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales.
- Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.
- Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.
- Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar.
- Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

Asimismo, derogará el Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongán a lo establecido en esta Ley.

Quinto.- Incidencia presupuestaria

No se prevé incremento del gasto público ni repercusión económica alguna de la nueva regulación.

Sexto.- Trámites e informes procedentes.

1. La redacción del texto del Anteproyecto de Ley de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior, se efectuará atendiendo al contenido de este Decreto, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos, y al resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.
2. Una vez redactado el Anteproyecto de Ley se someterá a la aprobación previa del Lehendakari.
3. De conformidad con lo establecido en el artículo 9 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, debe darse participación y consulta a los Departamentos del Gobierno que disponen de atribución competencial sobre las materias reguladas por las Leyes que se van a ver modificadas.
4. Asimismo, el Anteproyecto deberá ser objeto de trámite de audiencia y por ello, deberá ser remitido a las y los posibles interesados por razón de la materia que indique cada uno de los Departamentos a los que competan los ámbitos materiales objeto de modificación.
5. Además, atendiendo a lo establecido en el artículo 8 de la citada Ley 8/2003, de 22 de diciembre, el Anteproyecto de Ley será sometido a información pública.
6. Se solicitarán los informes preceptivos y dictámenes de los órganos consultivos en el momento y en la forma que determinen las disposiciones que regulan dicho trámite, con arreglo al vigente procedimiento de elaboración de disposiciones normativas, incluidos los relativos a:
 - a) Informe del Departamento de Cultura sobre la incidencia de las disposiciones de carácter general en la normalización del uso del euskera y su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística, exigido por el artículo 2 del Decreto 128/2007, de 31 de agosto, por el que se establece el régimen al que ha de



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

- ajustarse el trámite de evacuación de informe por el Departamento de Cultura en el marco del procedimiento de elaboración de disposiciones generales.
- b) Informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, conforme al artículo 21 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
 - c) Informe de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, de conformidad con lo establecido en el artículo 10 del Decreto 568/2009, de 20 de octubre, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Economía y Hacienda, en relación con el artículo 25 de la ley 14/1994, de 30 de junio, de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
 - d) Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, conforme al artículo 3.1.a) de la ley 9/2004, de 24 de noviembre.
 - e) Corresponderá a cada uno de los Departamentos a los que competan los ámbitos materiales objeto de modificación llevar a cabo las consultas respecto de los órganos consultivos que de conformidad con su normativa sectorial sean preceptivas.
7. Respecto de los trámites a realizar ante la Unión Europea, una vez se publique el texto final, éste deberá ser comunicado a la Comisión Europea.
 8. Se incorporará al expediente el presente Decreto de iniciación toda la documentación correspondiente, los estudios y consultas evacuados, la Memoria de ausencia de contenido económico de la regulación pretendida y una Memoria sucinta de todo el procedimiento, con el contenido que señala el artículo 10.2 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, y a los efectos de la aprobación final por el Consejo de Gobierno del Anteproyecto de Ley en los términos que señala el artículo 13 de la referida Ley.

Séptimo.- Remisión del presente Decreto.

Este Decreto se remitirá a la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico, que será el órgano encargado de la tramitación del procedimiento anteriormente citado.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 2010

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ALVAREZ

4/2010 Dekretua, otsailaren 15koa, lehendakariarena, zenbait lege aldatu eta Europako barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agindua ematen duena.

Lisboako estrategiaren itzalpean, 2006/123/EE Zuzentaraua onartu zen —2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena—, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa (aurrerantzean, Zerbitzuen Zuzentaraua). Urte horretan bertan jarri zen indarrean zuzentarau hori, abenduaren 28an. Erkidego-barneko zerbitzu-merkatuaren ezaugarria da Batasuneko estatu bateko naziotasuna duten herritarrek eta enpresek askatasuna dutela Batasuneko beste estatu bateko lurraldean kokatzeko. Orobat, zerbitzuak emateko askatasuna ere badago, eman behar diren estatu kidean kokatu beharrik gabe.

Zuzentarau hori derrigor aplikatu beharrekoa da, Erkidegoko zuzenbide eratorria baita, baina, ez hori bakarrik. Zerbitzuen sektoreak oso garrantzi handia du Erkidegoko ekonomian, eta zuzentarau horri esker, aukera paregabea dugu sektorea bera goitik behera berritzeko, hau da, zerbitzuen sektoreak Europan duen eman-ahala trabarik gabe garatu ahal izateko berebiziko tresna da.

Estatua hasi da zuzentarau hori Espainiako antolamendu juridikora biltzeko lana egiten. Horretarako idatzi du azaroaren 23ko 17/2009 Legea, oinarrizkoa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa. Bertan, Zerbitzuen Zuzentarauren baitako printzipio orokorrak jasotzeaz batera, autonomia-erkidegoetako araudiak egokitzen hasteko irizpide erkideak ere zehaztu dira.

Eta bilketa-lan hori amaitzeko, Estatuko Administrazioak 25/2009 Legea idatzi du (abenduaren 22koa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa). Lege horren bitartez, Zerbitzuen Zuzentarauko xedapenen eraginpean dauden Estatu-lege batzuk aldatu dira.

Egin nahi den lege-aurreproiektua sortu da, beharra ikusi delako Euskal Autonomia Erkidegoak neurriak har ditzan lege-mailako bere arauak 2006/123/EE zuzentaraura eta Estatuko oinarrizko legeetara egokitzeko (Estatuak oinarrizko legedia idatzi du Zuzentaraura bere baitara biltzeko).

Beraz, xedapen orokorrak egiteko prozedura hasi behar da, abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Dekretu honetan aipatutako prozeduraren antolamenduak hasiera-hasieratik eskatzen du araua egitea egokia dela adieraziko duen erabaki formala. Izan ere, formalitate hutsa baino gehiago da, garrantzi juridiko eta politiko handia duen egintza da, eta egingo den araua beharrezko eta bideragarri den ala ez zehaztuko duen gogoeta izan behar du oinarri.

Horregatik guztiagatik, eta abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1. artikulua arabera, hasteko aginduak ezinbestean izan behar duen edukian oinarrituta (hasteko agindua lehendakariaren dekretu bidez eman da), honako hau

XEDATU DUT:

Lehena.- Prozedura hasteko agindua. Helburua eta eskumena

1.- Dekretu honen xedea da zenbait lege aldatu eta Europako barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko lege-aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agindua ematea.

2.- Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, 4.1. artikuluan xedatzen du dena delako gaietan eskumena daukan sailaren titularra den sailburuak agindua eman ondoren hasi behar direla prestatzeko prozedurak. Halaber, legeak hala agintzen duenean, edo gai horren gainean sailburu bik edo gehiagok eskumen zuzena dutenean, agindua guztiek batera eman beharko dute.

Zenbait lege aldatu eta Europako barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko lege-aurreproiektuak hainbat sailatan du eragina. Hala ere, zenbait kontu aintzat hartu behar dira: lege-aurreproiektua egiteko ardura Lehendakariari eman zaiola Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 17ko Erabaki bidez (Erabaki horren bitartez onartu zen 2009-2013 aldiko IX. Legegintzaldirako Legegintzako Egutegia); 1/2010 Dekretuan (urtarrilaren 12koa, Jaurlaritzaren Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) xedatutakoaren arabera Jaurlaritzaren Lehendakariaren Koordinazioko Idazkaritza Nagusiaren eginkizuna dela lehendakariari laguntzea politika sektorialetan Euskal Autonomia Erkidegoko departamentu eta erakunde arteko artikulazioko, baterako plangintzako, koordinazioko eta lankidetzako ekintzak bultzatzen eta egiten; eta, besteak beste, legegintza-programa prestatu, gauzatu eta haren jarraipena egiteko eginkizunak esleituta dituela, bai eta parlamentuan izapidetzeko zeregina ere. Hori guztia kontuan izanik, prozedura hasteko agindua lehendakariaren Dekretu bidez eman da, lehendakaria delako Jaurlaritzako Lehendakariaren titularra.

Bigarrenen.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala

Araua guztiz bideragarria da, bai juridikoki, bai materialki. Estatuak oinarrizko legedia idatzi du 2006/123/EE Zuzentaraua bere baitara biltzeko. Orain, Euskal Autonomia Erkidegoak beharrezko neurriak hartu behar ditu lege-mailako bere arauak Zuzentarau horretara eta aipatutako oinarrizko legedira egokitzeko, eta horretarako egin dugu lege hau, hain zuzen. Baliteke, gainera, tartean diren jarduera-sektore batzuetan autonomia-erkidegoak eskumen beteak ez izatea, baina haietarako habilitazioa bai izatea, bada, halakoetan ere kontuan hartu beharko da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko eskumen-tituluen bidez izango du habilitazio hori (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartu zen Estatutua), eta eskumen-titulu horietan oinarriturik onartu ziren, bere garaian, orain Zerbitzuen Zuzentaraura egokitzeko aldatuko ditugun legeak.

Hirugarrenen.- Lege-aurreproiektuaren helburua eta xedea

Prestatze-prozesuan dagoen lege-aurreproiektuaren helburua eta xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait lege aldatu eta Europako barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzea.

Laugarrenen.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina

Zenbait lege aldatu eta Europako barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko lege-aurreproiektuak honako lege hauek aldatuko ditu:

- 4/1991 Legea, ekainaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia arautzen duena.
- 7/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko museoiei buruzkoa.
- 8/2004 Legea, azaroaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko industriari buruzkoa.
- 6/1994, martxoaren 16koa, turismoa antolatzen duena.
- 5/2004 Legea, maiatzaren 7koa, mahastizaintza eta ardogintza antolatzen dituena.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duena.
- 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa.
- 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzkoa.
- 11/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ordenazio farmazeutikoari buruzkoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte-zerbitzuei buruzkoa.
- 1/2008 Legea, otsailaren 8koa, familia-bitartekaritzari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.

Era berean, indargabetu egingo da 165/1999 Dekretua, martxoaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean adierazten den jarduera-lizentziarik lortu behar ez duten jarduerak zein diren zehazten duena.

Bosgarrena.- Aurrekontuan izango duen eragina

Ez da aurreikusi araudi berriak gastu publikoa gehituko duenik, ez eta inolako ondorio ekonomikorik izango duenik ere.

Seigarrena.- Beharrezko izapide eta txostenak

1. Zenbait lege aldatu eta Europako barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko lege-aurreproiektua idazteko, aintzat hartuko dira, batetik, Dekretu honen edukia, kontuan hartuz bete nahi diren helburuei ondoen egokituko zaizkien aukerak; eta, bestetik, ezarri nahi den araudia egokia eta legezkoa izango dela bermatzeko komenigarritzat joko diren kontsulten emaitza.
2. Lege-aurreproiektua idatzi eta gero, lehendakariari bidaliko zaio, alde zuzeneko onarpena eman diezaion.
3. 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldatuko diren legeak arautzen dituzten gaietan eskumena duten Jaurlaritzako sailei parte hartzeko eta kontsultatzeko aukera eman behar zaie.
4. Halaber, aurreproiektuaren entzunaldi-izapideak egin beharko dira eta, horregatik, aldaketak egingo diren gaietan eskumena duten sailek adieraziko duten gai bakoitzeko interesdunei bidali beharko zaie.
5. Gainera, lege-aurreproiektua jendaurrean jarriko da, 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, 8. artikuluan xedatutakoa betez.
6. Derrigorrezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak eskatuko dira, izapide hori arautzen duten xedapenek agintzen duten momentuan eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako txosten eta irizpen hauek bildu behar dira:
 - a) Kultura Sailaren txostena, izaera orokorreko xedapenek euskararen erabilera normalizatzeko ahaleginean izango duen eraginari eta hizkuntzaren alorrean indarrean dagoen arautegiarekiko egokitasunari buruzkoa (hala eskatzen du 128/2007 Dekretuak, abuztuaren 31koak, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren esparruan, txostena bideratzeko izapidean Kultura Sailak bete beharreko araubidea ezartzen duenak, 2. artikuluan).

- b) Emakunderen txostena, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolaren txostena, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuak 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, 25. artikuluan ezarritakoa betez.
 - d) EAEko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.a) artikulua arabera.
 - e) Aldatu behar diren eremuetan eskumena duten sailtako bakoitzari dagokio kontsulta-organoei buruzko kontsultak egitea, bakoitzaren sektoreko araudiaren arabera egin beharrezkoak direnak.
7. Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideei dagokienez, behin azken testua argitaratutakoan, Europako Batzordeari jakinarazi behar zaio.
8. Espedientera sartuko dira honako hauek: aurreproiektua egiten hasteko Dekretu hau, Dekretuari dagozkion dokumentu guztiak, bideratutako azterlanak eta kontsultak, egin nahi den arautzeak eduki ekonomikorik ez duela adierazten duen memoria eta prozedura osoari buruzko memoria motza, abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 10.2 artikuluan ezarritako edukiarekin, Gobernu Kontseiluak, azkenik, lege-aurreproiektua onar dezan, aipatutako legeko 13. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Zazpigarrena.- Dekretu hau bidaltzea

Dekretu hau Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzara bidaliko da, organo horrek izango baitu lehen aipatutako prozedura izapidetzeko ardura.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko otsailaren 15ean.

Lehendakaria,

FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ALVAREZ